

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak ondo jardun dezan ezinbestekoak dira hainbat funtsezko jarduera. Izan ere, funtsezko baliabideak bezala, balorezko proposamena egiteko, diru sarrerak lortzeko, gure bezeroen potentzialera iristeko eta hauekin harreman hobeto eta eraginkorragoago bat izateko beharrezkoak diren funtsezko jarduerak ditugu. Hau da, gure produktuaren ekoizpenaz beste batzuk arduratzen diren arren, badaude gure enpresak egiten dituen hainbat jarduera non garrantzitsuak diren honen salmentarako.

Lehenik eta behin, gure enpresaren egitekoa ez litzateke izango ekoizpena, baizik eta gure sozietateak hainbat xehetasun gehitu eta ondoren gure eremu geografikoan zabalduko luke. Hau da, batetik, produktuari hainbat hizkuntza desberdin gehituko dizkiogu (euskara, gaztelera eta katalana), eta bestetik, oraindik ezaguna ez den eremu geografiko batean ezagutzera eman eta komertzializatuko genuke, uste baitugu, bezero potentzial askok ez duala oraindik hone berri, baina izugarritzko harrera izango lukeela.

Bestalde, gure produktua ezaguna egiteko oso garrantzitsua izango litzateke sare sozialak modu egoki batean kudeatzea, izan ere, gaur egun, oso erabiliak dira eta horren bidez errazagoa eta merkeagoa da gure produkturaren berri ematea. Horretarako, Instagram, Facebook, Twitter eta bestelako sare sozialak irekiko genituzke, eta horretaz gain gure webgune propioa. Arlo honetan apustu sendoa egin behar izango dugu.